


Ula Iruretagoiena °

**SARRERA:** Bizkaian den Ajangizko Udalak 2009. urtean frontoi berri bat eraikitzeko ideia-lehiaketa sustatu zuen. BLUR arquitectura bulegoa gertatu zen irabazle, Alex Borrás, Enric Farrerons eta Octavio Pérez-ek osatutako taldea, alegia. Arkitekto talde horrek Errioxan eta Katalunian garatu du bere lana bereziki, eta Ajangizko frontoia Arquia Próxima 2012 deialdian aukeratua izan da.

Azalera: 649 m<sup>2</sup>

Aurrekontua: 717.000 euro

Proiektuaren data: 2011



### Frontoiak Euskal Herriko herri ugariaren muina izan dira. Zuen eraikinak nola erantzuten dio horri?

Ajangizko elizaren alboko hormak frontoi-erabilera izan du historikoki, udaletxeak eta Herriko Tabernak osatzen duten enparantza nagusiaren ondoan. Frontoi berriak "plaza estali handi bat" izan beharra zuela argi ondorioztatu genuen hasieratik. Herrigunean eraikin publiko nagusiak biltzen dira, eta frontoiak guztiei lotura emateko aukera eskaini zezakeen.

Abiapuntu hori kontuan harturik, frontoira iristeko bideak eta eraikinen arteko ibilbideak proposamenaren gai nagusi bilakatu ziren. Bestalde, proiektuaren erronkak enparantza nagusiaren eta frontoiaren kokapenaren arteko kota-desberdintasuna harmailen bidez ebaztea eta herriarentzat biltzeko espazio bat sortzea izan dira.


### Nolakoa da egungo frontoia? Nola eboluzionatu du frontoiak, eraikuntza-tipologia, kirol-jarduera eta sinbolo bezala?

Ohiko herriguneetako frontoiek kirol- eta giza aktibitateen beharrei erantzuten zieten soilik, frontoiak bere testuinguruarekiko sortu beharreko harremana ahaztu egiten zuelarik. Frontoia eliza edo eraikin baten hormaren inguruan sortzen zen, Ajangizko kasuan gune portikatu batean zen frontoia, adibidez. Frontoian garatzen diren kirolen beharrak ere aldatzen joan dira. Frontoi historikoak irekiak, aire librean eta jolas-espazio modura pentsatuak ziren, baina gaur egun neurri handikoak eta estaliak eskatzen dira programa zabalago bati zerbitzua eman diezaioten.

Herrietan ezarri beharreko frontoi berriek, beraz, eskakizun handiak bete behar dituzte. Kirol-aktibitateak eta behin-behineko ekitaldi handietarako zerbitzuak eskaintzeaz gain, izaera desberdinetako kirol-aktibitateak eta giza aktibitateak gertatzeko prestatuak izan behar dute. Frontoi garaikidea, beraz, tamainaz handitu bada ere eta kirol-beharrizan zorrotzagoei erantzun behar badie ere biltzeko espazio balioaniztuna da.



Argazki eta planoak: BLUR arquitectura



### Nola eraikitzen da pentsamendu arkitektonikoa, eraikinaren bihotz programatikoa hutsune handi bat denean?

Gure kasuan, bolumena frontoiaren espazio handiaren eskakizunetan oinarritu beharrean, gure pentsamendu arkitektonikoa testuinguruaren arazoak ebaztera bideratu genuen. Ohiko proposamena eraikinean testuinguru batean pentsatzea bada, guk alderantziz hasi genuen, leku bat irudikatu genuen eraikin bat kokatzeko. Frontoiaren txertaketak lekuan baldintza gogorrak ezartzen zituen: frontoiak lotu beharreko 5 metroko kota-desberdintasuna, irisgarritasuna, lotura-ibilbideak, egoteko lekuak, harmailak, argiztapena, bainugela eta biltegiko espazio osagarriak... Normalean bigarren mailako gai hauek guztiak lehen mailako kezka bihurtu genituen, ondoren jolas-espazioarekin loturan ezartzeko. Frontoi garaikidearen izaera balioaniztunak kirol-ekipamenduaz haratago doan espazioan pentsatzera behartzen du, horrexegatik, hutsune bihotzaren funtzionamendua gai *zerbitzuaileek* definitzen dute, eta ez alderantziz.

### Ajangizko Eleixalde auzoan txertatu beharreko frontoi berriaren ideia-lehiaketaren oinarrietan herri mailako beharrezkoak eskatzen ziren. Konta egiguzue behar horrek nola arautu zuen frontoi-proposamenaren ideia-sorrera.

Lehiaketaren oinarrietan frontoiaren altuera elizaren altuerara mugatzen zen eta, batik bat, frontoiaren eta elizaren arteko lotura ebazteari garrantzia ematen zitzaion. Oinarrien irakurketak jolas-eremuaren gorputza elizatik aldentzeko saiakera egitera bultzatu gintuen. Bolumena paperezko geruza batek definitzen du triangeluz osatutako geometria marraztuz. Estalkiaren osaketak zenbait gune babesteko eta beste batzuk aire librean uzteko jolasa eskaintzen digu. Horrela, sarbideak eta bolumenaren ertzek arnasa hartzen dute, hauek bereiziz eta elizarekiko elkarriketa indartuz aldi berean.

Bi material desberdinez osaturik dago frontoia. Alde batetik, hare-bukaerako hormigoi tindatuak oinarria eraikitzen du, eta bolumena definitzen duen azal eta estalkia korten altzairuzko zulaturiko txapa batez egina dago. Material horren aukeraketak, alde batetik elizatik desberdinduko duen material bat bilatzeko desiotik eratortzen da, eta, aldi berean, euskal industriaren tradizioari keinu egiten dion materiala izategatik.



### Arkitekto katalanak zarete. Zein esanahia du zuentzat euskal frontoiaik?

Ajangizko herriak frontoi berriaren eraikuntzari loturiko gogoa eta ilusioa hasieratik sumatu genuen. Urte luzeak eman dituzte frontoi baten aldarrikapenarekin eta, beraz, esanguratsua zen oso herriarentzat. Herritar orok proiektuarentzako desio bat eskaini zigun.

Euskal frontoiarekin harremanean den talde-sentimendua Kataluniako castellers giroarekin konpara daiteke. Ez da pilotaria izan behar, edo castellers bat izan behar frontoiaren

espazioaz bereganatzeko. Herri-ikur bat da, sinbolo bat, kirol-aktibitateak haratago doan identitate-sentimendu bat bederen.

Herri-espíritu horretan oinarritu gara batik bat frontoi berriaren eraikuntzan, kirol-aktibitateari ezartzen zaizkion legedi, neurri eta zerbitzuak betetzeaz gain, noski. Herritarraren ikuspegiari jaramon gehiago egin diogu, dena dela, bilera-espazio eta ibilbideari arreta berezia eskainiz. Frontoi garaikidea herriaren espazioa baita, irekia eta gertua.

\* Ula Iruretagoiena arkitekto eta EHUko irakaslea da.

